



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN INSTALAZIOETAN OBRAK EGITEKO ERAIKINAK KONTSERBATZEKO ZERBITZUA ETA ESPARRU-AKORDIOA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3234

Erregulazio bateratua duen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Laura Castresana Iglesias
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BBUPren eraikinen mantentze prebentibo eta zuzentzailea egiteko zerbitzua, eta eraikinak, lokalak edo instalazioak eraberritzeko, egokitzeko edo eguneratzeko obrak egitekoa, erabilera-behar berriengatik edo arau-aldaketei egokitu behar izateagatik. Hasierako kontratuari lotutako kontratu horien adjudikazioa arrazionalizatzeko, lizitazio honek berekin dakar adjudikaziodun suertatzen den kontratistarekin esparru-akordioa egitea. Akordio horretan, zerbitzu-kontratuak irauten duen bitartean adjudikatu nahi diren kontratu eratorriek bete beharreko baldintzak ezartzen dira.

2.- Bete beharreko premiak: Kontratu honen bidez, arintasunez erantzun nahi zaie BBUPren kokalekuetan sortu ohi diren beharrei, hala nola: • Prebentziozko mantentze-lanak: BBUPren eraikinen prebentziozko mantentze-lanak egitea, haien kontserbazio-egoera egokia bermatzeko, eraikinetako elementu esanguratsuenetan beharrezkoak diren jarduketan bidez (estalkiak, erretenak eta zorrotak, fatxadak, horien zati den arotzeria, barneko arotzeria, etab.). • Mantentze-lan zuzentzaileak: Eraikinen, lokalen eta abarren eraikuntza-elementuen erabilerak, antzinatasunak edo funtzionamenduak eragindako matxuren edo narriaduren ondoriozko gorabeherak konpontzea. Barne logistikako lanak barne hartzen ditu, altzariak eta ekipamendua lekuz aldatzea, alegia. • Obrak: Eraikinak, lokalak edo instalazioak eraberritzeko, egokitzeko edo eguneratzeko obrak egitea erabilera-behar berriengatik edo arau aldaketak egokitzeagatik.

3.-Loteetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteetan banatu ez izanaren justifikazioa: Ezin da loteetan banatu, uste baita kontratuaren ezaugarriengatik eta dauden beharren arabera zerbitzu berberak egingo dituzten antzeko prestazioak daudela, oro har eta bereizketarik gabe. Mantentze-, kontserbatze- eta berritze-jarduketak eraginkorrak izan daitezen eta egokitasun-arrazoiak egon daitezen, kontratistak berak egin beharko ditu aldi berean, segurtasunaren eta obra gauzatzearen arduradun bakarra egon dadin. Modu independentean egiteak zaildu egingo luke ikuspegi teknikitik lanok behar bezala gauzatzea; izan ere, kontratista desberdinek eginez gero, ezinezkoa izango litzateke



B.- KONTRATUAREN XEDEA

egoki koordinatzea eta erantzukizun horretatik eratorritakoa bermatzea.

4.- CPV:

CPV kodea: 45259000-7

Deskribapena: Instalazioak mantentzea eta konpontzea

5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI

☒ EZ

Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak:

6.-Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

1.038.535,42 EURO (BEZik gabe)

- Zerbitzu-kontratua: 538.535,42 € (BEZik gabe)

- Esparru-akordioa: 500.000,00 € (BEZik gabe)

Eskariaren arabera behar den unitate-kopurua eskuratuko da, eta lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoa ezarriko da gastu-muga gisa.

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 2.077.070,84 euro

- Zerbitzu-kontratua: 1.077.070,84 €

- Esparru-akordioa: 1.000.000,00 €

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

Prezioa egikaritze-unitateka dago ezarrita, eta kontratuaren xedean sartutako entrega edo prestazioen guztizko kopurua ez da zehatz-mehatz zehazten kontratua egiten den unean, entrega edo prestazio horiek Administrazioaren premien mende baitaude. Kontuan izan behar da benetako gastua Administrazioaren benetako premiek baldintzatzen dutela, eta, beraz, ez dagoela behartuta unitate-kopuru jakina eskatzera, ezta gastu-aurrekontu indikatibo osoa gastatzera ere.

4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

- 169.31.211.01. partida.

2026. urtea: 224.389,76 €

2027. urtea: 269.267,71 €

2028. urtea: 44.877,95 €

- 169.31.623.02. partida.



C.-KONTRATUAREN PREZIOA

2026. urtea: 208.333,33 €
2027. urtea: 250.000,00 €
2028. urtea: 41.666,67 €

Inbertsioetarako aurrekontu-esleipena: Esparru-akordioaren izaera bera kontuan hartuta, ez dago aurrekontu-esleipenik. Hala ere, kontratu eratorriak izapidetzeko, kreditu nahikoa egon beharko da.

5.-Prezioak berrikustea:

- ☐ BAI
☒ EZ

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

- ☐ BAI ☒ EZ
Funts-mota: Elkarrekin finantzatzeko %:

7.-Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiria .

8.-Ordainketak kontura: Ez da egin behar.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa

Bi (2) URTE

2.-Epe partzialak.

- ☐ BAI ☒ EZ

3.-Luzapena

- ☒ BAI ☐ EZ

Bi luzapen, bakoitza urte batekoa.

4.- Berme-epea: Urtebete

5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren hainbat instalazio

6.-Zerbitzu-kontratuaren zati bat jaso dezaketen lanak ☐ BAI ☒ EZ

E.- BERMEAK

☒ ZERBITZUEN behin betiko bermea: % 5
Adjudikazioa

Zenbatekoa:

☒ ESPARRU-AKORDIOAREN OBREN behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa:

Kontratu eratorri bakoitzaren adjudikazioa.

Kontratu bakoitzerako berme berezia eman ordez, adjudikaziodunak berme globala eratu ahal izango du, inbertsioen aurrekontuaren % 1ekoa.

Zenbateko hori esparru-akordiotik eratorritako kontratuetatik eratorritako betebeharrak betetzeko izango da, oro har eta modu iraunkorrean, kontratu bakoitzaren adjudikazioaren zenbatekoaren % 5era arte, BEZik GABE. Berme orokor hori birjarri edo zabaldu egin beharko da, baldin eta haren zenbatekoa ez bada iristen aldi berean egikaritzen ari diren kontratu guztiak estaltzeko.

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumenak, aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea, gehieneko gastuaren aurrekontuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko du gutxienez (519.267,71 €).



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

G- KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

- Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, baldin eta onuraduna sektore publikoko erakundea bada edo, onuraduna subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiri hori ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez.
Baldintza hau bete beharko da: egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak kontratuaren batez besteko urterokoaren % 70 edo handiagoa izango da. Kasu horretan, egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 363.487,40 eurokoa edo handiagoa izan behar da.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Ez da bidezkoa

ENPRESA-SAILKAPENA

Eskatutako kaudimen teknikoaren ordeaz, honako sailkapen hau egin ahal izango da:

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai, Aukerakoa ☐ Ez

Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria: O 3 1

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-iritzien arabera irizpideen dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailerak kontratua egikaritzeko proposamen tekniko bat aurkeztu beharko dute, adierazitako puntu guztien deskribapen zehatza barne, jarraian adieraziko den ordenan.

1. Egingo diren lanen irismena.
 - Egin beharreko gutxieneko lanen deskribapena, preskripzio tekniko partikularren agirian jasotako deskribapenari balio erantsia ematen diona (preskripzio tekniko partikularren agiriaren kopia hutsak ez du inolako baliorik ematen). Akatsak, kontraesanak edo hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzea.
 - Mantentze-lanetarako eta obretarako metodologia, lanaren irismenaren arabera.
 - Aparteko premien, larrialdien eta abarren aurrean jardutea.
2. Memoria teknikoa, gauzatze-metodologia eta kontrol-sistema.
 - Egin beharreko zereginen antolaketa, irismena eta garapena jasotzen dituen deskribapena jasoko du.
 - Kalitate-kontrolerako, hornidura-kontrolerako, material birziklatuak sartzeko, muntaia-kontrolerako eta funtzionamendu-probetarako aurreikusitako protokoloak zehaztuko dira.
 - Egikaritzea kontrolatzeko, kalitate-plana betetzeko eta obraren bilakaera tenporal eta ekonomikoaren jarraipena egiteko sistema. Jabetzaren, laguntzaren eta kontratistaren artean aurreikusitako antolamendua eta komunikazio-sistema.



BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Lanen garapenean kontrol-mugarriak proposatzea baloratuko da, aurreikusitako epeak eta lan-kalitatea betetzen direla bermatzeko.
- Kontratu honetarako aurreikusitako laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko kontrol-sistemak. Lan eta Ingurumen Arriskuen Prebentzio Planaren aurrerapen espezifiko eta ez-orokor bat sartzea.
- Kontratu honetarako aurreikusitako kalitate-kontroleko sistema. Lanak gauzatzeko proposatutako autokontrol-plana sartzea.
- 3. Egingo diren lanak egikaritzeko proposatutako programazioa.
 - Aurkeztutako antolaketa-alderdiak baloratuko dira, jabetzari laguntzeko zerbitzuaren garapen hobia bermatzeko, lanen faseetan eta horietako bakoitzean dauden beharrianetan oinarrituta. Azpikontratek plangintzaren barruan egiten dituzten lanak barne.
 - Lanak planifikatzea klima-baldintzen eta afekzioen arabera, azpikontratek plangintza horren barruan egiten dituzten lanak barne.
- 4. Kontratua egikaritzeko proposatutako antolamendu-egitura eta lantaldea.
 - Antolaketa-egitura eta langileen zerrenda, kontratista-delegatutik hasita beheraka.
 - Aurreko ataleko pertsonen CVa, prestakuntza eta lanbide-esperientzia jasota (gehieneko luzera: alde bat pertsonako).
 - Kontratuari izendatutako antolaketa-sistemaren deskribapen orokorra.
 - Lanen antolaketa eta koordinazioa deskribatzea, BBUPren instalazioetako eta bulegoetako langileekin batera kontserbazio- eta eraberritze-lanak eginez.
- 5. Langileen presentzia eta prestasuna kontratua gauzatzeko
 - Lanaldi arrunteko, gaueko, jaiegunetako eta aparteko beharrianetako, larrialdietako eta abarretako langileen presentzia eta prestasuna (kopurua, kategoria eta espezialitatea zehaztuta).
- 6. Lanak egikaritzeko esleitutako baliabide materialak.
 - Instalazioen deskribapena (aldagelak, tailerrak eta bulegoak).
 - NBEak eta babes kolektiboko ekipoak. • Erreminten eta ekipo elektronikoaren zein neurketakoen deskribapena. Banaketa eta adjudikazio-proposamena (komunak, pertsonalak...).
 - Ibilgailuak
 - Bitarteko osagarriak: aldamioak, garabiak, plataformak, multzo elektrogenoak, etab., propioak edo azpikontratatuak.
 - Hornitzaileekiko konpromisoak: azpikontratatzeko bada, hornitzaileekin sinatutako konpromisoa erantsi behar da.

ESKAITZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

Lote bakoitzeko proposamen teknikoak ez ditu berrogei (40) orrialde zenbakitu baino gehiago izango, eta ezaugarri hauek beteko ditu:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea eta eranskinak 40 orrialdeen barnean zenbatuko dira. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko.

40 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 40 orrialdeak baino ez dira kontuan izango.

Letra-mota eskatutakoa baino txikiagoa duen testu oro ez da kontuan hartuko.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) I. eranskinaren arabera (Prezio unitarioak) eskaintako prezio unitarioak.
- b) II. eranskinaren arabera (Neurketak eta aurrekontua) eskaintako kontratuaren neurketak eta aurrekontua.

Kontratututako prezio unitarioak ezingo dira baja bereiziaren eraginpean egon; beraz, I. eranskinaren barne hartutako lizitazio-prezio unitario bakoitzari beherapen globalaren ehunekoa aplikatuz lortutakoak izango dira kontratuaren garapenean kontuan hartu beharreko esleipen-prezio unitarioak. Gehitu diren eranskinetan ez badago behar diren lanak deskribatzen dituen partidarik, Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntza eta Urbanizazio Prezioen oinarria (Bizkaia) erabiliko da, agiri hau argitaratzen den azken bertsioan, urteko KPlaren igoerarekin, eskaintako baja globalaren ehunekoa aplikatuta.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia
Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- 1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eman beharreko puntuazioa honako formula honetatik ateratzen dena izango da: kasu bakoitzean baloratzen den enpresa lizitatzailleak eskaintzen duen baja-ehunekoa (ehunekotan) eta eskaintza merkeena egiten duen lizitatzaillearen baja-ehunekoa (ehunekotan) arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikatu beharreko puntu kopuru osoarekin biderkatzea. Hau da:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$P = BOV / MB \times 50$

- P eskaintza bakoitzerako ateratzen den puntuazioa da
- BOV baloratu beharreko eskaintza bakoitzaren baja da, ehunekotan adierazita.
- MB eskaintzako guztien artean baxu ekonomikorik handiena da, ehunekotan adierazita.
- Guztira 50 puntu eman dira

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

- **Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia 30 puntu**
 - Egin beharreko lanen irismena..... 8 puntu
 - Memoria teknikoa, gauzatze-metodologia eta kontrol-sistemak..... 14 puntu
 - Egin beharreko lanak egiteko proposatutako programazioa..... 8 puntu
- **Kontraturako eskuragarri jarritako bitarteko teknikoak 20 puntu**
 - Kontratua egikaritzeko antolamendu-egitura eta lantaldea..... 10 puntu
 - Langileen presentzia eta prestasuna kontratua gauzatzeko..... 5 puntu
 - Lanak egikaritzeko esleitutako baliabide materialak..... 5 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresa bakoitzaren plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran bizi diren langileen ehuneko handiena, eta, berdinketa egonez gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan inklusioko langileen kopuru handiena nagusituko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillan emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra aurkeztuz gero, edo lizitatzaille bakarra onartuz gero, baja ehunekoa % 25etik gorakoa denean hartuko da halakotzat.
- Bi lizitatzaille aurkeztzen direnean, halakotzat hartuko dira bajaren ehunekoa beste eskaintzarekiko % 20 baino handiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille edo gehiago aurkeztzen direnean, halakotzat hartuko dira onartutako eskaintzen baja-ehunekoen batez bestekoaz gain % 10etik gorako baja gehigarria dakartenak.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela.



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da bidezkoa

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA:

Kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat atxikiko dio kontratuari; hura kontratistaren plantillan sartuta egongo da eta kontratu-zuzendaritzarekiko solaskidea eta lanen arduradun nagusia izango da.

BESTE GOGOETA BATZUK

INSTALAZIOAK BISITATZEA:

BBUPren webguneko kontratatzailearen profilean, instalazioak bisitatzeko deialdi bat argitaratuko da. Eskaintzak aurkeztu nahi dituzten lizitatzzaileak joan ahalko dira, eta haiek baldintza tekniko partikularren pleguari buruz izan ditzaketen galderei erantzungo zaie.